



ABALTZISKETA

## IRAGARKIA

Gipuzkoako Udal Ogasunak arautzen dituen uztailak 5eko 11/1989 Foru Arauko 16.1 artikulua agindutako jendaurreko informazio epea amaitu denez eta epe horretan ez denez inolako zuzenketa eske edo oharkizunik aurkeztu, finko eta behin betikoak bihurtu dira Udal Batzarrak 2007ko urriaren 25ean hartu zituen behin behineko erabakiak Udal izaerako zenbait tributuren ordainarazpena arautzen duten Ordenantzak aldatzeari, 2008ko urtarrilaren 1etik hasita.

1- 2008 urteko urtarrilaren 1etik aurrera, ondorengo Zergei buruzko Ordenantza fiskalen eranskina hauek aldatu dira:

1. Ondasun Higiezinaren zerga

Landalur zerga: Tipoa: %0,683

Hirilur zerga: Tipoa: %0,175

2. Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen zerga.

Eranskina:

<u>Ibilgailuaren potentzia eta mota</u>	<u>Euroak</u>
a) Turismoak:	
9 zaldi fiskaletik beherakoak .....	20,92
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak .....	43,20
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak .....	93,72
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak .....	100,83
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak .....	129,64
20 zaldi fiskaletik gorakoak .....	158,45



**ABALTZISKETA**

b) Autobusak:

21 plaza baino gutxiagoak .....	108,34
21etik 50 plazara bitartekoak .....	154,31
50 plaza baino gehiagoak .....	189,32

c) Kamioiak:

1000 kg. karga baliagarritik beherako kamioia .....	55,00
1.000tik 2.999 kg.ra bitarteko karga erabilgarria dutenak .....	108,34
2.999tik 9.999 kg.ra bitarteko karga erabilgarria dutenak .....	154,31
9.999tik gorako karga erabilgarria dutenak .....	192,89

d) Traktoreak:

16 zaldi fiskal baino gutxiagoak .....	22,95
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak .....	34,97
25 zaldi fiskal baino gehiagoak .....	108,34

e) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak:

1.000 baino gutxiago eta 750 kg. baino gehiago karga erabilgarria dutenak .....	22,95
1.000tik 2.999 kg.ra bitarteko karga erabilgarria dutenak .....	34,97
2.999 kg.tik gorako karga erabilgarria dutenak .....	108,34

f) Bestelako ibilgailuak

Ziklomotoiak .....	5,75
125 cc.ra bitarteko motozikletak .....	5,75
125 cc.tik 250 cc.ra bitarteko motozikletak .....	9,84
250 cc.tik 500 cc.ra bitarteko motozikletak .....	19,69
500 cc.tik 1.000 cc.ra bitarteko motozikletak .....	42,12
1.000 cc.tik gorako motozikletak .....	78,80

2- 2008 urteko urtarrilaren 1etik aurrera Jardueren eta zerbitzu prestazioen gaineko tasen eranskin hauek aldatu dira:



ABALTZISKETA

1. Ura

(Ur kontsortzioak asanblean hartutako prezioak, sistema integralean).

2. Zaborra.

Etxeetakoa ..... 15,37 euro urtean.

Ez etxeetakoa ..... 103,53 euro urtean.

3. Hilerria.

Hilobiratzea, 10 urteko kontzesioa ..... 396,16 euro.

Hezurtokia, 10 urteko kontzesioa ..... 115,13 euro.

Gipuzkoako Udal Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 18.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, tipoak, kuotak, tarifak eta Ordenantzak finkatu eta aldatzea onesten duten akordio horien aurka, interesatuek errekurtsio kontentzioso-administratiboa tartekatu ahal izango dute Euskadiko Justizia Auzitegi Gorenaren aurrean bi hilabeteko epean, akordio horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuz.

Dena dela, interesatu horiek aurkez dezakete, nahi bada eta kontentzioso-administratibo bidea baino lehen, Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomi-Administratiboaren aurrean erreklamazioa hilabeteko epean, aipatu akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu denetik aurrera kontatuz.

Abaltzisketan, 2007ko abenduaren 3an.

Alkateak

Jesus M<sup>a</sup> Gorostidi Irazusta